

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Irrati Telebista
Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoa
(EITB) eta mendeko dituen sozietateak**

**Ente Público de Derecho Privado
Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca
(EITB) y sus sociedades dependientes**

2015





AURKIBIDEA / ÍNDICE

| | |
|---|----|
| LABURDURAK..... | 5 |
| I. SARRERA..... | 6 |
| II. IRITZIA..... | 7 |
| II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia..... | 7 |
| II.2 Urteko Kontuei buruzko Iriztia..... | 7 |
| III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK..... | 8 |
| III.1 Langileria..... | 8 |
| III.2 Hornitzaleei ordainketa epeak | 9 |
| IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA | 10 |
| IV.1 EiTB eta taldeko sozietateen kontu konsolidatuak | 10 |
| IV.2 EiTBreñ eta taldeko sozietateen banako kontuak | 12 |
| IV.3 EiTBreñ eta taldeko sozietateen aurrekontu likidazioa..... | 18 |
| ALEGAZIOAK | 19 |
| BOTO PARTIKULARRA | 21 |



| | |
|--|-----------|
| ABREVIATURAS | 23 |
| I. INTRODUCCIÓN..... | 24 |
| II. OPINIÓN..... | 26 |
| II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad..... | 26 |
| II.2 Opinión sobre las cuentas anuales..... | 26 |
| III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN..... | 27 |
| III.1 Personal..... | 27 |
| III.2 Plazos de pago a proveedores | 28 |
| IV. CUENTAS ANUALES Y LIQUIDACIÓN DE PRESUPUESTOS | 29 |
| IV.1 Cuentas consolidadas de EiTB y sociedades del Grupo | 29 |
| IV.2 Cuentas individuales de EiTB y sociedades del Grupo | 31 |
| IV.3 Liquidación de presupuestos de EiTB y sociedades del Grupo | 37 |
| ANEXOS | 39 |
| A.1 Naturaleza y normativa aplicable | 39 |
| A.2 Gastos de personal y plantillas..... | 40 |
| A.3 Gastos e inversiones relacionados con la producción | 42 |
| A.4 Contratación..... | 43 |
| ALEGACIONES | 45 |
| VOTO PARTICULAR | 47 |

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 27a
Vitoria-Gasteiz, 27 de febrero de 2017



LABURDURAK

| | |
|---------------|--|
| EAE | Euskal Autonomia Erkidegoa. |
| EDP | Enplegu Deialdi Publikoa. |
| EITB | Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoa. |
| EI, SAU | Eusko Irratia, SA kide bakarreko sozietatea. |
| ETB, SAU | Euskal Telebista, SA kide bakarreko sozietatea. |
| EITBNET, S.A. | Eitbnet, SAU kide bakarreko sozietatea. |
| EJ | Eusko Jaurlaritza. |
| SPKL | 30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa. |
| 4/2013 Legea | 4/2013 Legea, abenduaren 20koa, 2014ko ekitaldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena. |
| GI, SAU | Gasteiz Irratia, SA Kide bakarreko sozietatea. |
| 20/2012 ELD | 20/2012 Errege Dekretu Legea, uztailaren 13koa, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehiakortasunaren sustapena bermatzeko neurriei buruzkoa. |
| GSDN | Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia. |
| SPKLTB | 3/2011 Legegintzazko Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearren Testu Bategina. |
| EAETB | 1/2011 Legegintza Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko Aurrekontu Araubideari buruz indarrean dauden lege xedapenen bateratutako testua onartzen duena. |
| EHJAN | Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena. |
| TVCP/HKEE | Herri-Kontuen Euskal Epaitegia. |



I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak ezarritakoari jarraikiz, Euskal Irrati Telebista /EITB Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko dituen Sozietateen Urteko Kontuak fiskalizatu ditu, 2015eko ekitaldiari dagozkionak.

Fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Ondasun eta zerbitzuen erosketan, langilerian eta ekonomia-finantzaren kudeaketan indarreko legeria bete dela egiaztatzea.
- Kontularitzakoak: Aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta eragimenari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak “Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak” idazpuruan xehetasunez jaso ditugu.

Fiskalizazio lana sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu da eta kasu bakoitzean beharrezko iritzitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia defendatzeko, baita kanpoko auditore batek egindako urteko kontuen auditoria euskarritzen duten lan paperen azterketa ere.

EiTB Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak sortu zuen eta berezko nortasun juridikoa du. Autonomia Estatutuaren 19. artikuluak xedatzen duenaren arabera, eskuordetu ziren eskumenen esparruan Autonomia Erkidegoari dagozkion egitekoak betetzen ditu, irratia eta telebista zerbitzuen titular den aldetik.

Irrati-telebistako zerbitzu publikoen kudeaketa horretarako sortutako sozietateen bitartez gauzatzen da: Euskal Telebista-Televisión Vasca, SAU/ETB, SAU, Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, SAU/EI, SAU, Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, SAU/RV, SAU eta Eitbnet, SAU/EITBNET, SAU. Horrezaz gain, 2015eko abenduaren 31n EITBNET, SAUk % 24,62ko partaidetza du Expressive Media Projects, SLn eta % 22,73koa Kultura Klub Euskadi, SLn.

EiTB eta mendeko sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EAERen Aurrekontu Orokoren kontura eta gauzatzen dituzten jardueratik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatzen dira, 5/1982 Legearren 45 artikuluak agintzen duenaren arabera. Bestetik, EITBNET, SAU, Estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuraturako berezko sarreren bidez finantzatzen da.

2015eko ekitaldirako 2012ko Kontratu-Programa luzatu da, 2012ko ekainaren 21ean izenpetu zena. 2016ko otsailaren 24an EJk eta EITBk Kontratu-Programa berria izenpetu dute 2016-2019 aldirako eta honek, aurrekoek bezala, Erakundeak bere gain hartu dituen irratia-hedapen eta telebistako zerbitzu publikoaren edukiak definitzen ditu eta irratia, telebista eta Interneteko zerbitzu publikoa emateko helburuak eta hartutako konpromisoak zehazten ditu. Berebat, Kontratu-Programak epe horretan Eusko Jaurlaritzak egingo dituen ekarpenak zehazten ditu: 473 milioi euro ustiaren gastua berdintzeko; 11,4 milioi euro ibilgetuko inbertsioak finantzatzeko eta 19,9 milioi euro Europako obra cinematografikoetan nahitaezko finantzaketari dagozkionak.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Erakundeak eta mendeko sozietateek aurreko paragrafoan aipatutakoa alde batera, zuzentasunez bete dute 2015eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

2015eko ekainaren 22an Konstituzio Auzitegiak konstituzioaren aurkako eta baliogabe izendatu zuen abenduaren 23ko 2/2009 Legearen 23.9 artikulua, EAERen 2010eko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituena, zeinaren indarrez Taldeko langileei % 5eko soldata murrizketa egin zitzaien. 2016ko martxoaren 3an eta ekainaren 14an Euskal Herriko Auzitegi Gorenak eta justizia Auzitegi Nagusiak zenbait epai ebatzi dituzte adieraziaz ez zaizkiola zuzenbideari egokitzen ETB, SAU eta EI, SAUko langileei aplikatutako soldata murrizketak eta une hartan indarrean zegoen hitzarmen kolektiboaren araberako soldata jasotzeko eskubidea berrezartzeko eraginpeko langileei. Balioetsi den zenbatekoa guztira 5,3 milioi eurorena da EiTB taldek sozietate guztientzat. 2015eko abenduaren 31ko Urteko Kontuek ez dute kontzeptu horren izenean inongo hornidurariik jasotzen.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan adierazitako ez-betetzea salbuetsita, Erakundearen eta mendeko sozietateen Urteko Kontu finkatuek alderdi esanguratsu guztietan 2015eko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 LANGILERIA (ikus A.2)

41/2000 EiTB taldeko zuzendari izendatu zituen 130/1999 Dekretuak aurreikusitako ondorioetarako EITBko zuzendari nagusia, EiTBko zuzendari/kudeatzailea, ETBko zuzendaria eta EiTB Irratiko zuzendari koordinatzailea.

2014ko uztailaren 22an onartutako EiTBko organigraman, aurreko paragrafoan jasotako 4ez gain, zuzendaritzako beste 72 lanpostu ageri dira. Horietatik 49 taldeko langile finkoak dira; 22, aurretik EiTB taldearekin inongo kontratu-loturarik ez zuten langileak dira eta beste bat hutsik dago 2015eko abenduaren 31n. Guztiak eskuratu dute lanpostua izendapen askeko prozedura bidez, profesionaltasun irizpideak oinarri hartuta (5/1982 Legearen 16.2.f artikulua) eta izendapena aldez aurretik administrazio-kontseiluari jakinarazi zitzaison. 2013ko ekainean aurretik EiTB taldearekin lan-harremanik batere ez zuten kontrataturiko 22 zuzendariei banaka jakinarazi zitzaien lanpostuan jarraitu ahal izatea egungo zuzendaritzaren agintaldia iraungitzeari meneratua zegoela. 2013tik aurrea, klausula hau jasoa dago izenpetutako kontratu berriean.

Gainera, 2015eko abenduaren 31n indarrean zegoen plantillan 37 pertsona onartutako zuzendaritzako organigraman jaso gabeko ardurazko lanpostuetan ageri dira. Horietatik 18k, profesionaltasun irizpideen arabera eta deialdi publikorik gabe kontratatu zirenak, ez zuten aurretik EiTB taldearekin inongo lanbide loturarik; gainerako taldeko langileria finkoa da. Lanpostu hauek administrazio kontseiluak onartutako zuzendarien organigraman barne hartu gabe daudenez gero, 5/1982 Legearen 36 eta 47.2 artikuluei jarraiki, deialdi publiko bidez bete behar dira eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemen arabera. Aurretik EiTB taldearekin lan-harremanik batere ez zuten kontrataturiko pertsonei 2013ko ekainean banaka jakinarazi zitzaien lanpostuan jarraitu ahal izatea egungo zuzendaritzaren agintaldia iraungitzeari meneratua zegoela. 2013tik aurrea, klausula hau jasoa dago izenpetutako kontratu berriean.

Lanpostu guzti hauek direla eta, esan behar da:

- Gomendagarria litzateke administrazio-kontseiluak organigramaren aldaketa onartzea eta zuzendaritzako edo goi mailako egitekoak betetzen dituzten lanpostu haien soilik barne hartzea.

5/1982 Legearen 16.2.f artikuluak lanpostu hauek Zuzendaritza Nagusiaren izendapen bitartez betetzea aurreikusten du, profesionaltasun irizpideak baliatuta. Nolanahi den ere, gomendagarria litzateke, betiere bete asmo den lanpostuaren arabera, hautaketa publikotasun printzipioa gordetzen duten sistemak baliatuta egitea.



- 2015ean EiT BK zuzendari postuen organigraman jaso gabeko erantzukizun lanpostu batetarako langile bat kontratatu zuen profesionaltasun irizpideari jarraikiz, inongo deialdi publikorik egin gabe.
- Organograman jaso gabeko zuzendaritza postuen erantzukizunezko lanpostuen beharrak eta ezaugarriak, betetzeko sistema, balioa eta ordainsaria irizpide objektiboen arabera zehaztea gomendatzen dugu.

III.2 HORNITZAILEEI ORDAINKETA EPEAK

Uztailaren 5eko 15/2010 Legearen xedapen gehigarri 3.ak eskatutako informazioari dagokionez, merkataritza eragiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duena, 2015eko urtean legezko epea gainditu duen hornitzaleei egindako ordainketen zenbatekoa 25,3 milioi eurorena izan da, guztira ordaindutakoaren % 30 eta hazztatutako batez besteko ordainketa epea 11 egunean gainditu da. Bestetik, 2015eko abenduaren 31n EITB taldeko hornitzaleei ordaintzeke zegoen saldotik 255.166 euroren zenbatekoak (horietatik, 232.698 euro ETB, SAUri dagozkio), legeak horretarako finkatzen duen legezko 60 eguneko epea baino gerorapen luzeagoa zeukan.



IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

IV.1 EITB ETA TALDEKO SOZIETATEEN KONTU KONTSOLIDATUAK

Hona hemen balantzea, galera-irabazien kontua, ondare garbian aldaketen egoera eta eskudiruzko fluxuen egoera, 2015eko abenduaren 31n konsolidatuak eta auditatuak:

| BALANTZE KONTSOLIDATUAK | | | | Euroak milakotan | |
|---|---------------|---------------|---|------------------|---------------|
| AKTIBOA | 2015 | 2014 | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | 2015 | 2014 |
| AKTIBOA EZ ARRUNTA | 58.212 | 62.302 | ONDARE GARBIA | 71.138 | 75.094 |
| Ibilgetu ukiezina..... | 8.165 | 8.348 | Berezko funtsak..... | 60.220 | 64.181 |
| Ibilgetu materiala..... | 49.925 | 53.832 | Funts soziala..... | 77.516 | 76.516 |
| Taldeko enpresetan partaidetzak..... | 9 | 9 | Konstolidat. sozietateetan erreserbak | - | 114 |
| Finantza inbertsioak epe luzera | 113 | 113 | Baliokidetzen jarritako soziet. erreserbak . | (108) | (108) |
| AKTIBO ARRUNTA | 36.042 | 34.077 | Aurreko ekitaldietako ondorioak..... | (12.227) | (5.368) |
| Izakinak | 11.528 | 13.340 | Soziet. nagusia egotxit. ekitald. emaitz.. | (4.961) | (6.973) |
| Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt ... | 7.920 | 5.909 | Jasotako diru-laguntza, dohain. eta legat.... | 10.918 | 10.913 |
| Taldeko eta elkart. enpres. e/lab. inber..... | 610 | 610 | PASIBO EZ ARRUNTA | - | 158 |
| Finantza inbertsioak epe laburrera..... | 59 | 310 | Aldizkakotzeak epe luzera | - | 158 |
| Aldizkakotzeak epe laburrera..... | 48 | 241 | PASIBO ARRUNTA | 23.116 | 21.127 |
| Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz. ... | 15.877 | 13.667 | Epe laburreko zuzkidurak eta zorrak | 2.732 | 2.409 |
| | | | Merkat. hartzek. & ordaint. b.kontu batz.... | 20.384 | 18.665 |
| | | | Aldizkakotzeak epe laburrera..... | - | 53 |
| AKTIBOA GUZTIRA | 94.254 | 96.379 | ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZT. | 94.254 | 96.379 |

| KONTSOLIDATUTAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA | | | Euroak milakotan | |
|--|--|--|------------------|----------------|
| | | | 2015 | 2014 |
| Negozio zifratik zenbateko garbia | | | 17.013 | 14.556 |
| Amaitzutako eta fabrikazioan dauden produktuen izakinak gehitzea..... | | | (1.715) | (2.983) |
| Hornidurak | | | (40.065) | (37.155) |
| Bestelako ustiaketa sarrerak | | | 110.480 | 108.187 |
| Langile gastuak (*) | | | (59.138) | (55.596) |
| Bestelako ustiapen gastuak | | | (26.627) | (27.023) |
| Ibilgetuaren amortizazioa..... | | | (9.659) | (11.337) |
| Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea eta beste | | | 4.695 | 4.395 |
| Soberako hornigaiak eta bestelako emaitzak..... | | | 30 | - |
| USTIAPENAREN EMAITZA | | | (4.986) | (6.956) |
| Finantza sarrerak, finantza gastuak eta truke aldeak | | | 25 | (17) |
| EMAITZA FINANTZARIOA | | | 25 | (17) |
| Baliokidetasunean jarritako sozietateen mozkinetan (galeretan) partaidetza | | | - | - |
| EMAITZA ZERGA AURRETIK | | | (4.961) | (6.973) |
| Mozkinen gaineko zerga..... | | | - | - |
| EKITALDIAREN EMAITZA | | | (4.961) | (6.973) |

(*) Kopuru honek 93.515 euroan gainditzen du banako egoeren langileria-gastuen guztizko, izan ere birsailkatze baten ondorioz Horniduren saldoa murriztu da eta Langileria-gastuena igo, finkapen / konsolidazio ondorioetarako.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KONTSOLIDATUTAKO ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA

| A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA KONTSOLIDATUA | Euroak milakotan | |
|---|------------------|----------------|
| | 2015 | 2014 |
| Galera eta irabazien kontuaren emaitza | (4.961) | (6.973) |
| Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak | 4.700 | 3.838 |
| Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira..... | (4.695) | (4.404) |
| AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTU KONTSOLIDATUAK GUZTIRA | (4.956) | (7.539) |

| B) ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA KONTSOLIDATUAK GUZTIRA | Euroak milakotan | | | | |
|--|-------------------------------------|-------------------------------|--|---------------|---------------|
| | GIZARTE FUNTSA ETA ERRESERBAK | AURREKO EKITAL. EMAIZAK | JASOTAKO EKITAL. D.-LAG., DOHAN. EMAITZA | ETA LEGAT. | GUZTIRA |
| 2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 223.377 | (145.373) | (7.477) | 11.479 | 82.006 |
| Aitortutako sarrera eta gastuak..... | - | - | (6.973) | (566) | (7.539) |
| Gizarte funtsaren bariazioa | 1.000 | - | - | - | 1.000 |
| Ondare garbiaren bestelako aldaketak | (147.855) | 140.005 | 7.477 | - | (373) |
| 2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 76.522 | (5.368) | (6.973) | 10.913 | 75.094 |
| Aitortutako sarrera eta gastuak..... | - | - | (4.961) | 5 | (4.956) |
| Gizarte funtsaren bariazioa | 1.000 | (6.973) | 6.973 | - | 1.000 |
| Ondare garbiaren bestelako aldaketak | (114) | 114 | - | - | - |
| 2015-EKO URTEKO AZKEN SALDOA | 77.408 | (12.227) | (4.961) | 10.918 | 71.138 |

| C) KONTSOLIDATUTAKO ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA | Euroak milakotan | |
|---|------------------|----------------|
| | 2015 | 2014 |
| Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik..... | (4.961) | (6.973) |
| Emaitzari doiketak | 6.291 | 8.297 |
| Kapital arruntean aldaketak | 332 | 5.858 |
| Ustiapan jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk | 33 | 48 |
| USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | 1.695 | 7.230 |
| Inbertsioen ordainketak | (5.354) | (6.613) |
| Inbertsio ezagatiko kobrantzak | 252 | - |
| INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | (5.102) | (6.613) |
| Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak | (51) | (377) |
| Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak | 5.700 | 4.540 |
| FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | 5.649 | 4.163 |
| Truke tipoen bariazioen eragina | (32) | (65) |
| ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA | 2.210 | 4.715 |
| Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran | 13.667 | 8.952 |
| Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran | 15.877 | 13.667 |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

IV.2 EITB-REN ETA TALDEKO SOZIETATEEN BANAKO KONTUAK

Hona hemen 2015eko abenduaren 31n urteko kontuak, milako euroetan emanak:

| | Euroak milakotan | | | |
|---|------------------|---------------|---------------|---------------|
| | EITB | | ETB, SAU | |
| | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 |
| AKTIBO EZ ARRUNTA | 59.862 | 63.377 | 38.494 | 41.712 |
| Ibilgetu ukiezina..... | 723 | 760 | 7.348 | 7.405 |
| Ibilgetu materiala..... | 17.509 | 18.076 | 31.146 | 34.307 |
| Taldeko enpresetan eta elkartutakoetan epe luzeko inbertsioak | 41.517 | 44.428 | - | - |
| Finantza inbertsioak epe luzera | 113 | 113 | - | - |
| AKTIBO ARRUNTA | 16.632 | 13.929 | 30.349 | 28.439 |
| Izakinak | - | - | 11.528 | 13.340 |
| Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b. | 768 | 289 | 5.899 | 4.450 |
| Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak..... | - | - | 12.816 | 10.092 |
| Finantza inbertsioak epe laburrera..... | - | 1 | 57 | 309 |
| Aldizkakotzeak epe laburrera..... | 4 | 3 | 40 | 231 |
| Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak | 15.860 | 13.636 | 9 | 17 |
| AKTIBOA GUZTIRA | 76.494 | 77.306 | 68.843 | 70.151 |

| | Euroak milakotan | | | |
|--|------------------|---------------|---------------|---------------|
| | EITB | | ETB, SAU | |
| | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 |
| ONDARE GARBIA | 61.493 | 64.900 | 50.315 | 52.568 |
| Berezko funtsak..... | 60.827 | 64.222 | 40.063 | 42.334 |
| Jasotako diru-laguntza, dohaintza eta legatuak..... | 666 | 678 | 10.252 | 10.234 |
| PASIBO EZ ARRUNTA | - | - | - | 158 |
| Aldizkakotzeak epe luzera..... | - | - | - | 158 |
| PASIBO ARRUNTA | 15.001 | 12.406 | 18.528 | 17.425 |
| Epe laburreko zuzkidurak..... | - | - | 687 | 1.160 |
| Zorrak epe laburrera | - | - | 901 | 578 |
| Taldeko eta elkartutako enpresekiko epe laburreko zorrak | 14.182 | 11.662 | - | - |
| Merkataritz. hartzek. eta ordain. b. knt. batzuk..... | 819 | 744 | 16.940 | 15.634 |
| Aldizkakotzeak epe laburrera..... | - | - | - | 53 |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA | 76.494 | 77.306 | 68.843 | 70.151 |



GALERA-IRABAZIEN KONTUA

| | Euroak milakotan | | | |
|--|------------------|----------------|----------------|----------------|
| | EITB | | ETB, SAU | |
| | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 |
| Negozio zifratik zenbateko garbia | - | - | 14.770 | 12.599 |
| Izakinen bariazioa | - | - | (1.715) | (2.983) |
| Hornidurak | (417) | (282) | (39.940) | (35.953) |
| Bestelako ustiaketa sarrerak | 6.181 | 5.774 | 86.207 | 86.161 |
| Langileria-gastuak | (3.989) | (3.999) | (35.352) | (34.846) |
| Bestelako ustiapen gastuak | (1.688) | (1.581) | (23.007) | (23.445) |
| Ibilgetuaren amortizazioa | (603) | (644) | (8.746) | (10.290) |
| Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea | 12 | 54 | 4.682 | 4.341 |
| Beste emaitza batzuk | (1) | - | - | - |
| USTIAPENAREN EMAITZA | (505) | (678) | (3.101) | (4.416) |
| Finantza sarrerak | 1 | 10 | 14 | 48 |
| Finantza gastuak eta truke aldeak | (10) | (30) | (34) | (65) |
| Baliabide finantzarioak besterenguanatzeagatiko narriadura eta emaitza | (3.881) | (6.227) | - | - |
| EMAITZA FINANTZARIOA | (3.890) | (6.247) | (20) | (17) |
| EMAITZA ZERGA AURRETIK | (4.395) | (6.925) | (3.121) | (4.433) |
| Mozkinen gaineko zerga | - | - | - | - |
| EKITALDIAREN EMAITZA | (4.395) | (6.925) | (3.121) | (4.433) |

BALANTZEA

| | Euroak milakotan | | | | | |
|---|------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|------------|
| | EI, SAU | | GI, SAU | | EITBNET, SAU | |
| | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 |
| AKTIBO EZ ARRUNTA | 302 | 416 | 967 | 1.032 | 94 | 183 |
| Ibilgetu ukiezina | - | - | - | - | 94 | 183 |
| Ibilgetu materiala | 302 | 416 | 967 | 1.032 | - | - |
| Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak | - | - | - | - | - | - |
| AKTIBO ARRUNTA | 2.782 | 2.725 | 494 | 468 | 750 | 702 |
| Izakinak | - | - | - | - | - | - |
| Merkat. zordunak eta kobratz. beste knt. b. | 988 | 899 | 126 | 180 | 139 | 91 |
| Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak..... | 1.785 | 1.813 | 365 | 282 | 610 | 610 |
| Finantza inbertsioak epe laburrera | - | - | - | - | 1 | 1 |
| Aldizkakotzeak epe laburrera | 2 | 4 | 2 | 2 | - | - |
| Eskudirua eta best. aktibo likido baliokideak | 7 | 9 | 1 | 4 | - | - |
| AKTIBOA GUZTIRA | 3.084 | 3.141 | 1.461 | 1.500 | 844 | 885 |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

| | Euroak milakotan | | | | | |
|---|------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|-------------|
| | EI, SAU | | GI, SAU | | EITBNET, SAU | |
| | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 |
| ONDARE GARBIA | 435 | 991 | 1.019 | 1.103 | (616) | (50) |
| Berezko funtsak..... | 435 | 991 | 1.019 | 1.103 | (616) | (50) |
| PASIBO ARRUNTA | 2.649 | 2.150 | 442 | 397 | 1.460 | 935 |
| Epe laburreko zuzkidurak..... | 1.026 | 517 | 116 | 83 | - | 70 |
| Zorrak epe laburrera | - | - | 1 | - | - | - |
| Taldeko & elkartutako enpresekiko zorr. epe laburrera | - | - | - | - | 783 | 524 |
| Merkat. hartzekod. eta ordaint. bste knt batz. | 1.623 | 1.633 | 325 | 314 | 677 | 341 |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA | 3.084 | 3.141 | 1.461 | 1.500 | 844 | 885 |

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

| | Euroak milakotan | | | | | |
|---|------------------|----------------|--------------|-------------|--------------|--------------|
| | EI, SAU | | GI, SAU | | EITBNET, SAU | |
| | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 | 2015 | 2014 |
| Negozio zifratik zenbateko garbia | 3.631 | 3.207 | 545 | 542 | 2.958 | 2.865 |
| Hornidurak | (1.885) | (1.799) | (221) | (190) | (133) | (1.184) |
| Bestelako ustiaketa sarrerak | 18.728 | 16.612 | 3.314 | 3.361 | 4 | - |
| Langileria-gastuak..... | (14.781) | (13.238) | (2.430) | (2.475) | (2.492) | (1.038) |
| Bestelako ustiapen gastuak..... | (6.172) | (6.069) | (1.217) | (1.242) | (923) | (808) |
| Ibilgetuaren amortizazioa..... | (129) | (229) | (94) | (87) | (89) | (88) |
| Gehiegizko hornidurak..... | - | - | - | - | 31 | - |
| USTIAPENAREN EMAITZA | (608) | (1.516) | (103) | (91) | (644) | (253) |
| Finantza sarrerak..... | 2 | 1 | - | - | 27 | 21 |
| Finantza gastuak eta truke aldeak..... | - | (2) | (1) | - | 1 | - |
| Baliab. finantz. bestereng. narriadura & emaitza .. | - | - | - | - | - | (2) |
| EMAITZA FINANTZARIOA | 2 | (1) | (1) | - | 28 | 19 |
| EMAITZA ZERGA AURRETIK | (606) | (1.517) | (104) | (91) | (616) | (234) |
| Mozkinen gaineko zerga..... | - | - | - | - | - | - |
| EKITALDIAREN EMAITZA | (606) | (1.517) | (104) | (91) | (616) | (234) |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA:

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

| | EITB | ETB, SAU | EI, SAU | GI, SAU | EITBNET, SAU |
|--|----------------|----------------|--------------|--------------|--------------|
| Galera eta irabazien kontuaren emaitza | (4.395) | (3.121) | (606) | (104) | (616) |
| Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak.. | - | 4.700 | - | - | - |
| Galera-irabazietara transferentziak..... | (12) | (4.682) | - | - | - |
| AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA | (4.407) | (3.103) | (606) | (104) | (616) |

B) ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

| | AURREKO GIZARTE FUNTSIA | EKITAL. EMAITZAK | EKITAL. EMAITZA | D.-LAG., DOHAN. ETA LEGAT. | JASOTAKO GUZTIRA |
|--|-------------------------------|---------------------|--------------------|-------------------------------|---------------------|
| 2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 223.240 | (145.373) | (7.449) | 433 | 70.851 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (6.925) | 245 | (6.680) |
| Funts sozialaren igoerak..... | 1.000 | - | - | - | 1.000 |
| Galeren konpentsazioa | (147.343) | 147.343 | - | - | - |
| Beste batzuk..... | (382) | - | - | - | (382) |
| Emaitzan banaketa | - | (7.449) | 7.449 | - | - |
| Bestelako zuzenketak..... | - | 111 | - | - | 111 |
| 2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 76.515 | (5.368) | (6.925) | 678 | 64.900 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (4.395) | (12) | (4.407) |
| Gizarte funtsaren igoerak..... | 1.000 | - | - | - | 1.000 |
| Beste batzuk | - | (6.925) | 6.925 | - | - |
| 2015-EKO URTEKO AZKEN SALDOA | 77.515 | (12.293) | (4.395) | 666 | 61.493 |

| EiTb, SAU | JAULKIPEN PRIMAREN KAPITALA ETA ERRETSERBAK | AURREKO EKITAL. EMAITZAK | JASOTAKO EKITAL. EMAITZA | D.-LAG., DOHAN. ETA LEGAT. | GUZTIRA |
|--|--|--------------------------------|--------------------------------|-------------------------------|---------------|
| 2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 180.074 | (127.374) | (6.818) | 11.036 | 56.918 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (4.433) | (802) | (5.235) |
| Kapitalaren igoerak..... | 885 | - | - | - | 885 |
| Galeren konpentsazioa | (134.192) | 134.192 | - | - | - |
| Emaitzan banaketa | - | (6.818) | 6.818 | - | - |
| 2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 46.767 | - | (4.433) | 10.234 | 52.568 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (3.121) | 18 | (3.103) |
| Kapitalaren igoerak..... | 850 | - | - | - | 850 |
| Emaitzan banaketa | - | (4.433) | 4.433 | - | - |
| 2015-EKO URTEKO AZKEN SALDOA | 47.617 | (4.433) | (3.121) | 10.252 | 50.315 |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

| EiTB, SAU | JAULKIPEN | | | | |
|--|---------------|-----------------|----------------|-----------------|--------------|
| | PRIMAREN | AURREKO | JASOTAKO | | |
| | KAPITALA ETA | EKITAL. | EKITAL. | D.-LAG., DOHAN. | ETA LEGAT. |
| ERRETSERBAK | EMAITZAK | EMAITZA | ETA LEGAT. | GUZTIRA | |
| 2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 14.499 | (11.706) | (294) | - | 2.499 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (1.517) | - | (1.517) |
| Kapitalaren igoerak..... | 9 | - | - | - | 9 |
| Galeren konpentsazioa | (12.000) | 12.000 | - | - | - |
| Emaitzan banaketa | - | (294) | 294 | - | - |
| 2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 2.508 | - | (1.517) | - | 991 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (606) | - | (606) |
| Kapitalaren igoerak..... | 50 | - | - | - | 50 |
| Emaitzan banaketa | - | (1.517) | 1.517 | - | - |
| 2015-EKO URTEKO AZKEN SALDOA | 2.558 | (1.517) | (606) | - | 435 |
| GI, SAU | | | | | |
| 2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 5.531 | (4.257) | (85) | - | 1.189 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (91) | - | (91) |
| Kapitalaren igoerak..... | 5 | - | - | - | 5 |
| Emaitzan banaketa | - | (85) | 85 | - | - |
| 2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 5.536 | (4.342) | (91) | - | 1.103 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (104) | - | (104) |
| Kapitalaren igoerak..... | 20 | - | - | - | 20 |
| Emaitzan banaketa | - | (91) | 91 | - | - |
| 2015-EKO URTEKO AZKEN SALDOA | 5.556 | (4.433) | (104) | - | 1.019 |
| EITBNET, SAU | | | | | |
| 2013-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 1.444 | (812) | (498) | - | 134 |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (234) | - | (234) |
| Kapitalaren igoerak..... | 50 | - | - | - | 50 |
| Galeren konpentsazioa | (1.310) | 1.310 | - | - | - |
| Emaitzan banaketa | - | (498) | 498 | - | - |
| 2014-KO URTEKO AZKEN SALDOA | 184 | - | (234) | - | (50) |
| Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira | - | - | (616) | - | (616) |
| Kapitalaren igoerak..... | 50 | - | - | - | 50 |
| Emaitzan banaketa | - | (234) | 234 | - | - |
| 2015-EKO URTEKO AZKEN SALDOA | 234 | (234) | (616) | - | (616) |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

ESKUDIRUEN FLUXUEN EGOERA

Euroak milakotan

| | EITB | ETB, SAU | EI, SAU | GI, SAU | EITBNET, SAU |
|---|--------------|----------------|-------------|-------------|--------------|
| USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | | | | | |
| Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik..... | (4.395) | (3.121) | (606) | (104) | (616) |
| Emaitzari doiketak | 4.481 | 4.459 | 764 | 466 | 4 |
| Kapital arruntean aldaketak | 2.116 | (1.765) | (197) | (357) | 534 |
| Eskudiruzko beste fluxu batzuk | (9) | 14 | 2 | (1) | 26 |
| GUZTIRA | 2.193 | (413) | (37) | 4 | (52) |
| INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | | | | | |
| Inbertsioengatiko ordainketak..... | (969) | (5.313) | (15) | (27) | - |
| Inbertsio ezagatiko kobrantzak | - | 252 | - | - | - |
| GUZTIRA | (969) | (5.061) | (15) | (27) | - |
| FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK | | | | | |
| Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak... | - | 5.550 | 50 | 20 | 50 |
| Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak | 1.000 | (51) | - | - | - |
| GUZTIRA | 1.000 | 5.499 | 50 | 20 | 50 |
| Truke tipoen bariazioen ondorioa..... | - | (33) | - | - | 2 |
| ESKUDIRUAREN EDO BALIOKIDEEN | | | | | |
| IGOERA / BEHERAPENA | | | | | |
| Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran..... | 13.636 | 17 | 9 | 4 | - |
| Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran | 15.860 | 9 | 7 | 1 | - |
| GUZTIRA | 2.224 | (8) | (2) | (3) | - |



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Pùblicas

IV.3 EITB-REN ETA TALDEKO SOZIETATEEN AURREKONTU LIKIDAZIOA

Hona hemen 2015eko ekitaldirako kapital eta ustiapen aurrekontuak eta horien likidazioa:

KAPITALAREN AURREKONTUA

| | | | | | | Euroak milakotan | |
|---|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|------------------|-----------|
| | EITB | ETB, SAU | EI, SAU | GI, SAU | EITBNET, SAU | | |
| | Aurrek. Gauzat. | | |
| INBERTSIOAK | | | | | | | |
| Ustiap. jard.eskudiruzko fluxu negat. | - | - | 413 | - | 37 | - | - |
| Inb. ukiezin, material eta bst. gehitzea | 30 | - | 5.550 | 5.527 | 50 | 15 | 29 |
| Finantza inbertsioak gehitzea..... | 970 | 970 | - | - | - | - | 1 |
| Finantza pasib. baliabideak urritzea..... | - | - | - | 159 | - | - | - |
| Truke tipoen bariazioaren eragina | - | - | - | 34 | - | - | - |
| Eskudiruaren igoera garbia..... | - | 2.223 | - | - | - | - | - |
| INBERTSIOAK GUZTIRA | 1.000 | 3.193 | 5.550 | 6.133 | 50 | 52 | 29 |
| FINANTZAKETA | | | | | | | |
| Ustiap. jard.eskudiruzko fluxu posit..... | - | 2.193 | - | - | - | - | 4 |
| Transferentziak, diru-lag., dohaint..... | - | - | 4.700 | 4.700 | - | - | - |
| Ondare baliabideak gehitzea..... | 1.000 | 1.000 | 850 | 1.102 | 50 | 50 | 20 |
| Pasibo finantz. baliabideak gehitzea..... | - | - | - | 323 | - | - | 9 |
| Truke tipoen bariazioaren eragina | - | - | - | - | - | - | - |
| Eskudiruaren murriketa garbia..... | - | - | - | 8 | - | 2 | 4 |
| FINANTZAKETA GUZTIRA | 1.000 | 3.193 | 5.550 | 6.133 | 50 | 52 | 29 |

USTIAPENAREN AURREKONTUA

| | | | | | | Euroak milakotan | | |
|--|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|-----------------|------------------|--------------|--------------|
| | EITB | ETB, SAU | EI, SAU | GI, SAU | EITBNET, S.A. | | | |
| | Aurrek. Gauzat. | | | |
| GASTUAK | | | | | | | | |
| Langileria-gastuak | 3.989 | 3.989 | 35.593 | 35.593 | 14.540 | 15.539 | 2.430 | 2.430 |
| Hornidurak..... | 30 | 417 | 40.628 | 39.941 | 1.843 | 1.885 | 232 | 221 |
| Kanpoko zerbitzuak..... | 1.484 | 1.685 | 22.781 | 23.423 | 5.841 | 5.757 | 1.137 | 1.174 |
| Tributuak | 3 | 3 | 81 | 53 | 135 | 132 | 20 | 9 |
| Bestelako ustiaketa gastuak | - | 1 | - | - | - | - | - | - |
| Finantza gastuak | 11 | 10 | - | 3 | 3 | - | - | 1 |
| Eman beharreko diru-laguntzak | 108.102 | 108.102 | - | - | - | - | - | - |
| Kobr. kntuen igoera, ordaintzekoen murr.. | - | - | - | 2.394 | - | 84 | - | 20 |
| Ustiap. jard.eskudiruzko fluxu posit..... | - | 2.193 | - | - | - | - | 4 | - |
| GASTUAK GUZTIRA | 113.619 | 116.400 | 99.083 | 101.407 | 22.362 | 22.397 | 3.819 | 3.859 |
| SARRERAK | | | | | | | | |
| Negozio zifraren zenbat. garbia | 40 | 427 | 10.637 | 12.494 | 3.633 | 3.631 | 505 | 545 |
| Bestelako ustiaketa sarrerak..... | 3.656 | 3.953 | 2.321 | 2.423 | - | - | - | - |
| Ustiapen transferentzia/diru-laguntzak | 109.903 | 109.903 | 86.075 | 86.060 | 18.727 | 18.727 | 3.314 | 3.314 |
| Finantza sarrerak | 20 | 1 | 50 | 17 | 2 | 2 | - | 27 |
| Kobr. kntuen igoera, ordaintzekoen murr.. | - | 2.116 | - | - | - | - | - | 573 |
| Ustiap. jard.eskudiruzko fluxu negat. | - | - | - | 413 | - | 37 | - | - |
| DIRU-SARRERAK GUZTIRA | 113.619 | 116.400 | 99.083 | 101.407 | 22.362 | 22.397 | 3.819 | 3.859 |
| | | | | | | | 3.360 | 3.613 |



EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOARI ETA EITB-REN MENDEKO SOZIETATEEI EGINDAKO 2015EKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZAK DIRELA ETA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

TXOSTENAREN ONDORIEI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

III. BARNE KONTROL SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO OHARRAK

III.1 LANGILEAK

ALEGAZIOA

“III. Barne-kontrol sistemei eta kudeaketa-prozedurei buruzko txostenaren oharrak. III.1 Langileak” idatz-zatiari dagokionez, honakoa adierazi nahi dugu: fiskalizazio-txostenak, labur-labur baina behar bezala, EiTB Taldearen zuzendaritza-langileen izaera eta osaera jaso du. Bertan, aipatutako lau goi-zuzendariek soilik betetzen ez duten zuzendaritzaz-organigrama bat egoteko aukera onartzen da (nola ez, aintzat hartuz hainbat sozietatek, komunikabidek eta 1.000 langilek osatzen duten eta 130 milioi euroko aurrekontua daukan enpresa-taldea dela). Hau da, beste zuzendaritza-kargudun batzuek ere osatzen dute eta azken horiek zuzendaritza-funtzioak betetzen dituzte, “goi-kargudunen edo horien antzekoen” legezko izaera ez duten arren. EiTB Herri Erakundeak hainbeste bider agertu du tesi hori eta, orain, HKEEk ulertzen du organigraman zuzendaritzako 76 kargudun daudela: esandako 4 goi kargudunak, beste zuzendari batzuk, eta beste buru edo erdi-mailako arduradun batzuk, denak profesionaltasun irizpidearen arabera izendatuak, EiTB arautzen duen 5/1982 Legearen 16.2.f) artikuluak dioenari jarraituta.

HKEEk adierazpen batzuk egin ditu organigramaren aldaketa bati buruz; horren arabera, zuzendaritza-funtzioak edo goi-mailako funtzioak burutzen dituzten karguak soilik sartu nahi dira, eta postu horiek, ahal dela, publizitatearen printzipioa babesten duen sistemaren bidez beteko dira. Nolanahi ere, adierazpen horiek gomendio edo iradokizun bat dira, eta ez dute esan nahi legezkotasuna bete ez denik; horrenbestez, erakunde publikoaren zuzendaritzak jakinarazi du hobetzeko aukera horiek aztertuko dituela eta haien abian jartzea bultzatuko duela, Hori dela eta, jakinarazi nahi dugu egungo zuzendaritzak bere agintaldiaren hasieran zuzendaritza-organigrama aldaketa bat sustatu zuela; ondorioz, nabarmen murriztu zen erakunde publikoaren eta bere sozietateen zuzendaritza-kargudunen kopurua. HKEEk, dagokion fiskalizazio-txostenean, agerian utzi zuen hobekuntza hori, 2013. urtearen hasieran, egungo agintaldiaren hasieran, egikaritutakoa.

Aurrekoa gorabehera, eta zuzendaritza-organigrama (37 postu) osatzen ez duten izendapen askeko langileei dagokienez, honakoa eman nahi dugu jakitera:

1. Beren izendapena 5/1982 Legearen 16.2.f) artikuluan xedatutako prozedura eta eskumen berak betez egin da. Hortaz, Administrazio Kontseiluari aurretiazko jakinarazpena egin zitzaion, eta izendapena justifikatzen duen eta gaikuntza profesionala egiaztatzen duen profesionaltasunaren printzipioan oinarritutako esleipena egin zen.



2. Egia izan arren postu horiek ez direla zuzendaritza-organigraman sartzen, postuok izendapen askeko langileen izaera daukate. Izendapena EAEko Administrazio Orokorraren behin-behineko langileenaren parekoa da, eta horren administrazio-araudiak duela 30 urtetik baino gahiagotik hartzen ditu barne langile-mota horiek, eta berau justifikatzen duen kontantza-izaeran oinarritutako izendapen askearen bidez aukeratzen ditu. Aitzitik, EiTbK eta bere sozietaeek, ohiko lan-araudiaren arabera eraentzen direnez, ez daukate berariaz kontratu-figura hori; hala ere, sektore publikoko erakundeak diren aldetik, zentzuzkoan dirudi, parekotasunagatik, konfiantzazko behin-behineko langileak izatea, enkaitze nahiz izendapen askekoak, EAEko Administrazio Orokorean dauden antzeko langileen parekoak, hain zuzen ere.



BOTO PARTIKULARRA, HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIKO KIDE DEN TERESA CRESPO DEL CAMPO ANDREAK EUSKAL IRRATI TELEBISTA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAREN ETA MENDEKO SOZIETATEEN 2015-EKO EKITALDIARI DAGOKION FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOA.

Boto partikular hau jaulki dut errespetu osoz Euskal Irrati Telebista (EITB) Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoaren eta mendeko sozietaeten 2015eko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostenaren edukiarekiko desadostasuna adierazteko, ondotik azaldutako zioengatik; txostena HKEEko Osoko bilkurako kideen gehiengoz onartu zen 2017ko otsailaren 27an egindako bilkuran.

A) Txostenaren III.1 atalean, Barne kontrolerako eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenei buruzkoan, langileria gaietan esaten da 2015eko ekitaldian EITBk zuzendaritzako postuen organigraman jaso gabeko lanpostu baterako pertsona bat aldi baterako kontratatu duela profesionaltasun irizpidea baliatuta, inongo deialdi publikorik egin gabe.

Euskal Irrati-Telebista herri-erakundea sortzen duen maiatzaren 20ko 5/1982 Legearen 36.2 eta 47.2 artikuluak urratu dira.

Izan ere, 36.2 artikuluak dio “*ezingo dela zuzendaririk izendatu behar bezala onartutako organigraman jaso gabeko postuetarako*”.

Berebat, 47.2 artikuluak xedatzen du “*Erakunde eta bere sozietaetarako langileen hautaketa deialdi publiko bidez eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraiki egingo dela*”.

Legezko mandatua argia eta zehatza da: batetik, organogramarik gabe ez dago zuzendaritzako langilerik izendatzerik eta bestetik, erakundearen edo bere sozietaeten plantillarako sarbidea deialdi publiko bitarte egin beharko da, merezimendu eta gaitasun printzipioak buru hartuta. Lanpostuan jarraitzea egungo zuzendaritzaren epe-mugara meneratzeak ez du inondik ere kontratazioa legezko egiten.

Gainera, Epaitegi honek 2009tik 2014ra bitarteko ekitaldietan jaukitako txostenetan, ez-betetze hau salbuespen modura jaso da legezkotasunari buruzko iritziaren atalean.

Horregatik guztiagatik, langileen kontratazioari buruzko irizpen hau, ene iritzira, legezkotasunaren atalean salbuespen modura jaso behar litzatekeen lege-haustea da (txostenaren II.1 atala).



B) Bestetik, txostenak honako irizpen hau jaso behar luke:

“Ez da inongo irizpide objektiborik aurreikusi burutzako lanpostuak bete, balioztatu eta ordaintzeko moldeari dagokionez eta zuzendaritzaren esku geratzen da, baina lanpostuaren eta egindako balorazioen ebidentzia utzi gabe.

Beharrezko da burutzako lanpostuen beharrizanak eta ezaugarriak zehaztea eta horiek balioztatzeko irizpide objektiboak finkatzea, eskagarriak diren betekizunen arabera, hala nola, titulazio taldea, ezagutza teknikoak, zaitasuna, erantzukizuna eta baliagarritasuna.”

Ez da gai honetan aurreko urteekiko inongo aldaketarik egin eta halaz guztiz ere, ez da 2009az geroztik Epaitegi honek egindako txosten guztietan jaso den irizpen hau barne hartu.

C) Azkenik, EHUk 2015eko ekitaldiko Kontu Orokorraren Oroitidazkian ez du jasotzen 2012ko abenduko ordainsari aparteko eta osagarria kendu izanaren ondorioz bere zerbitzura diharduen langileriak jaso ez duen zenbatekoari buruzko informaziorik, uztailaren 13ko 20/2012 Legearen Errege Dekretuaren ondorioz, aurrekontuaren egonkortasuna eta lehia sustatzeko neurriei buruzkoa; ez-betetze hori ere jaso behar litzateke txostenean.

Are gehiago, txosten hau behin-behinekotasunez onartu zen Osoko bilkura berean (2016ko abenduaren 22) onartu zen 2014ko ekitaldiari dagokion EHUREN behin betiko fiskalizazio txostenetan, irizpenetan aipatu ez-betetzea jasotzen duena, Gasteizko Udalaren 2014ko ekitaldiko behin betiko fiskalizazio txostenak bezalaxe, Osoko bilkurak 2017ko otsailaren 9ko Osoko bilkuran onartu zuena.



ABREVIATURAS

| | |
|--------------|---|
| CAE | Comunidad Autónoma de Euskadi. |
| CPE | Convocatoria Pública de Empleo. |
| EiTB | Ente Público Euskal Irrati Telebista. |
| EI, SAU | Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, SA Sociedad Unipersonal. |
| ETB, SAU | Euskal Telebista-Televisión Vasca, SA Sociedad Unipersonal. |
| EiTBNET, SAU | Eitbnet, SAU Sociedad Unipersonal. |
| GOVA | Gobierno Vasco. |
| LCSP | Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público. |
| Ley 4/2013 | Ley 4/2013, de 20 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la CAE para el ejercicio 2014. |
| RV, SAU | Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, SA Sociedad Unipersonal. |
| RDL 20/2012 | Real Decreto Ley 20/2012 de 13 de julio, para garantizar la Estabilidad Presupuestaria y de Fomento de la Competitividad. |
| TGSS | Tesorería General de la Seguridad Social. |
| TRLCSP | Real Decreto Legislativo 3/2011 de 14 de noviembre, Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público. |
| TRRPE | Decreto Legislativo 1/2011, de 24 de mayo que aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes en materia de Régimen Presupuestario de Euskadi. |
| TSJPV | Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma del País Vasco. |
| TVCP/HKEE | Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri Kontuen Euskal Epaitegia. |



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP/HKEE), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, ha fiscalizado las Cuentas Anuales del Ente Público de Derecho Privado Euskal Irrati Telebista/EiTB y de sus sociedades dependientes correspondientes al ejercicio 2015.

La fiscalización abarca los siguientes aspectos:

- Legales: el cumplimiento de la legislación vigente en materia de adquisición de bienes y servicios, personal y gestión económico-financiera.
- Contables: el sometimiento de la documentación financiera presentada a los principios contables que resultan de aplicación.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis de la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre los sistemas de control interno y procedimientos de gestión”.

El trabajo de fiscalización se ha desarrollado de acuerdo con los principios y normas de auditoría aplicables al sector público, realizándose aquellas pruebas selectivas, revisión de procedimientos y demás técnicas habituales de auditoría que se han considerado necesarias en cada circunstancia, para soportar la opinión contenida en el informe, incluida la revisión de los papeles de trabajo que soportan la auditoría de las cuentas anuales efectuada por un auditor externo.

EiTB, creado por la Ley 5/1982, de 20 de mayo, del Parlamento Vasco, y dotado de personalidad jurídica propia, ejerce las funciones que corresponden a la Comunidad Autónoma como titular de los servicios de radiodifusión y televisión, en el marco de las competencias que se asumieron conforme a lo dispuesto en el artículo 19 del Estatuto de Autonomía.

La gestión de los servicios públicos de radio y televisión se lleva a cabo a través de las sociedades creadas para ello: Euskal Telebista-Televisión Vasca, SAU/ETB, SAU, Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, SAU/EI, SAU, Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, SAU/RV, SAU y Eitbnet, SAU/EiTBNET, SAU. Además, a 31 de diciembre de 2015, EiTBNET, SAU posee un 24,62% en Expressive Media Projects, SL y un 22,73% en Kulture Klub Euskadi, SL.

EiTB y sus sociedades dependientes, de cuyas acciones es el único titular, se financian con cargo a los Presupuestos Generales de la CAE y mediante los ingresos y rendimientos de las actividades que realicen, según establece el artículo 45 de la Ley 5/1982. Por su parte EiTBNET, SAU, se financia con los ingresos propios por el desarrollo de su actividad, de acuerdo con el artículo 12 de sus estatutos.

Para el ejercicio 2015 se ha prorrogado el Contrato-Programa correspondiente al ejercicio 2012, firmado el 21 de junio de 2012. El 24 de febrero de 2016 GOVA y EiTB han suscrito un nuevo Contrato-Programa para el período 2016-2019 que define, al igual que los anteriores, los contenidos del servicio público de radiodifusión y televisión que el Ente tiene



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

encomendados y concreta los objetivos y compromisos con la prestación del servicio público de radio, televisión e internet. El Contrato-Programa fija así mismo las aportaciones a realizar por el GOVA en dicho período para compensación del gasto de explotación (473 millones de euros), financiación de inversiones de inmovilizado (11,4 millones de euros) y financiación obligatoria en obras cinematográficas europeas (19,9 millones de euros).



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En opinión de este Tribunal, el Ente y sus sociedades dependientes han cumplido razonablemente en el ejercicio 2015 la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

El 22 de junio de 2015 el Tribunal Constitucional declaró inconstitucional y nulo el artículo 23.9 de la Ley 2/2009, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la CAE para el ejercicio 2010, en base al cual se aplicó una reducción salarial del 5% a los trabajadores del Grupo. Con fechas 3 de marzo y 14 de junio de 2016 el Tribunal Supremo y el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco han dictado sendas sentencias declarando no ajustadas a derecho las reducciones salariales aplicadas a los trabajadores de ETB, SAU y EI, SAU, respectivamente, con reposición a la plantilla afectada en su derecho de ser retribuida conforme al convenio colectivo vigente en aquel momento. El importe estimado de este gasto asciende a un total de 5,3 millones de euros, para todas las sociedades del grupo EiTB. Las Cuentas Anuales a 31 de diciembre de 2015 no recogen provisión alguna por este concepto.

En opinión de este Tribunal, excepto por la salvedad señalada en el párrafo anterior, las Cuentas Anuales consolidadas del Ente y sus sociedades dependientes, expresan en todos los aspectos significativos la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera al 31 de diciembre de 2015, de los resultados de sus operaciones en el ejercicio, de sus cambios en el patrimonio neto y de los flujos de efectivo correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.



III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

En este apartado se señalan tanto deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se ponen de manifiesto para la mejora de la gestión.

III.1 PERSONAL (ver A.2)

El Decreto 41/2000 declaró directivos del grupo EiTB, a los efectos previstos por el Decreto 130/1999 al Director/a General de EiTB, al Director/a Gerente de EiTB, al Director/a de ETB y al Director/a Coordinador/a de EiTB Radio.

En el organigrama del grupo EiTB aprobado el 22 de julio de 2014 figuran, además de los 4 señalados en el párrafo anterior, otros 72 puestos directivos. De ellos, 49 son personal fijo del grupo, 22 son personal sin relación contractual previa con el grupo EiTB y otro está vacante a 31 de diciembre de 2015. Todos ellos han accedido al puesto por el procedimiento de libre designación, en base a criterios de profesionalidad (artículo 16.2.f de la Ley 5/1982), habiéndose notificado su nombramiento con carácter previo al Consejo de Administración. En junio de 2013 a los 22 directivos contratados que no tenían relación profesional previa con el grupo EiTB se les comunicó individualizadamente que la continuidad en el puesto estaba condicionada al vencimiento del mandato de la actual dirección. A partir de 2013 esta cláusula está incluida en los nuevos contratos suscritos.

